



Irakeko Kurdistango emakumeak

Bizitza amets

Zinera edo ur-parkera joatea zaila dute Irakeko Kurdistango emakumeek. Muturrera joz, milaka emakume dira urtero “ohore krimenen” biktima. Batzuk hil egiten dituzte eta beste batzuek beren buruaz beste egiten dute. Horixe ei da infernutik ihes egiteko modu bakarra askorentzat.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA

DOHUKKO zine-areto bakarrak Newroz izena du eta hiri erdigunean dago, bazarraren alboan. Egurrezko butaken hamar lerro ditu, pantaila zaharkituari begira. Itxuraz, herri txiki bateko edozein zine-areto bezalakoa da, detailtxo bat salbu: emakumeek debekatuta dute sartzea.

Hoshank eta Lena duela urtebete iritsi ziren Dohukera. Kandilgo mendietan urte ugari PKKko gerlari izan ondoren, aspaldiko ametsa bete nahi zuten: film bat ikusi benetako zine-areto batean. Sarrerako gizonak Hoshanki ez zion eragozpenik jarri –gizonezkoa

baita–, baina Lenari “kanpoan itxaroteko” esan zionean, sutan jarri ziren biak. Gerlari zirela dena elkarrekin egiten zutela erantzun zioten, “borrokatu, sukaldatu eta baita ikasi ere!”. Baina alferrikako eztabaida izan zen hura eta etxera bueltatu ziren azkenean, euren amets umila bete gabe.

Lenak eta Hoshankek taberna jarri zuten martxan duela hilabete batzuk, Dohukoko uharka lehorraren ondoan. Herrian gutxi batzuk baino ez dute deskubritu zein toki atsegina den hura tearen inguruan elkartzeko, eguz-

◉ Irakeko Kurdistango emakumeak

kitakoaren aterpean. Izan ere, bikoteak bere diru guztia inbertitu zuen tabernako mahai, aulki eta bestelakoetan, baina kafetegia ireki eta hiru egunera, Gobernuko funtzionario batzuk azaldu eta “kafea, tea, eta alkoholik gabeko freskagarriak” baino ezin zituztela zerbitzatu jakinarazi zieten. Antza, Hoshanken sukalde berriak ez omen zituen betetzen Irakeko Kurdistango “higiene baldintzak”. “Osasun argudioak baino, Gobernuan seniderik ez izatea da gure arazo nagusia hona etorri ginenetik”, kexu da 14 urtez gerlari izandako gizona.

Debekua kolpe handia izan zen bikotearentzat, edari hutsen salmentak nekez ematen baitie errenta ordaintzeko. Nolanahi, diru eskasiak ez ditu apaldu euren betiko idealak. Joan den martxoaren 8an, Hoshankek pankarta erraldoia eskegi zuen bere tabernan: “Ospa dezagun Emakumearen Eguna”, zioen leloak. Bere tabernara inoiz gerturatu ez ziren askok berarengana jo zuten orduan, haserre, “lekuz kanpoko” ekimena zelakoan. Turkiako ejertzitoaren hamaika erasoei aurre egin dien gizon honek nekez egin zien entzungor inguruko komentario mingarriei. “Gutxienez, Cobra helikopteroen jaurtigaiak inperpersonalagoak ziren”, gaineratu du Hoshankek saminez.

Egun berean, Lena Dohukeko Emakumeen Kolektiboak antolatutako ekitaldira joan zen. Sinesgaitza bada ere, ez zioten parte hartzen utzi, eta berak oso garbi du zergatik: “Batetik Siriako kurdua naiz, eta bestetik PKKko gerlari ohia. Bi faktoreok zama handia dute hemen, baina ez nuen uste bazterketa Emakumeen Kolektiboraino iritsiko zenik”.



Goitik behera, Hoshank eta Lena, Ibrahim eta Hajer. Beheko irudian, Dohukeko unibertsitatean.

Dena den, Hoshank eta Lena ez dira Emakumearen Egunean baino mobilizatzen ez direnetakoak. Newroz zine-aretoan gertatutakoagatik amorruek hartuta, euren zine propioa antolatzea erabaki zuten. Hoshankek bi maindire erosi eta josi zituen, aire zabaleko zinetokiko pantaila izan zedin. Lagun batek proiektore zahar bat utzi zion, eta horra hor: Dohukeko bigarren zine-aretoa; aire zabalekoa, doakoa, eta gizon, emakume eta familia ororentzat egina.

“Hollywoodeko pelikula ezagun horietako bat lortu genuen eta jakinmina herri osoan piztu zen –gogoratu du Hoshankek–. Bikote gazte ugari inguratu zen tabernara. Jende asko, alabaina, ez zen gerturatzen ausartu, baina urrutitik ikusi zuten proiektzioa. Emakume gehienentzat zinearekin antza zuen zerbait dastatzeko aukera izan zen hura. Halako batean, emakume protagonistari bularra ikusi zitzaion segundo batez, eta orduantxe komeriak! Batzuk oihuka, irainka, hasi ziren; beste hainbatek ospa egin zuen, liskarra areagotu zitekeen beldur... Proiektzioa moztu behar izan genuen azkenean”.

Harrez geroztik, ezer gutxi aldatu da Hoshank eta Lenaren tabernan. Bezeroak tantoka iristen dira, gizona ez beti. Aldian behin familiarren bat gerturatzen da, baina ez kurdua; Bagdadetik, hiritik, etorritako errefuxiatuak izan ohi dira beti.

“Emakume kurduak gizonak zerbitzatzeko eta euren seme-alabak hazteko jaiok dira, ez besterik –dio Lenak saminez–. Ez dira euren bizitzaren jabe. Horixe izan zen mendira jotzeko nire arrazoiatako bat”.



Aisialdi urria eta inoiz ez mistoa

Ibrahim gizona da, baina ez da inoiz Newroz zine-aretoan sartu. Batetik, 30 urteko gazte hau Dohukeko bazar zaratatsutik urruti bizi da; bestetik, bere bizitzaren erdia Tenesseen (AEB) igaro du; nahikoa denbora hamaika film han bertan ikusteko. Egia esan, erraz estrena liteke bere bizitzan oinarritutako filma. Egun negozio gizon arrakastatsua bada ere, Ibrahimen haurtzarora eta nerabezarora oso bestelakoak izan ziren: “10 urte nituela Irakeko Kurdistandik alde egin genuen, Saddamen erasoetatik ihesean –hasi da kontatzen–. Turkiako mugako mendietan kobazuloetan bizi ostean, Diyarbakirrera iritsi ginen. Bi urte eman genituen hango errefuxiatu eremu batean. Zapatak garbitzen nituen bizirauteko, hainbat eta hainbat ume kurduk bezala. Azkenean, AEBetara joateko baimena lortu genuen, eta Tenesseen geratu ginen”.

Ibrahimek fortuna txiki bat egin zuen han, baina diruak ez zuen inolaz ere apaldu bere herrimina. 2003an, atzerrian 15 urte egin eta gero, AEBetako armadaren itzultzaile gisa bueltatu zen Dohukera. 2004an, Kirkukeko neska bat ezagutu zuen, ezkondu eta Tenesseea joan ziren bizitzera. 2007an bueltatu zen, eta Irak osoko aisialdirako konplexurik handiena ireki berri du Dohuken udaberri honetan: “*Gerdun wellness fitness*”. Hiri kanpoaldean dagoen eraikin berri eta erraldoian, jacuzzi, gimnasio, igeritoki eta makina bat eskaintza dago. “Dena bideratuta dagoenean, nire emaztea eta biok hemen jarriko gara bizitzen betiko”, dio enpresari ausartak pozarren.

Nolanahi, pentsaezina da oraindik igeritoki, gimnasio eta, zer esanik ez, jacuzzi mistorik antolatzea Irakeko Kurdistanen. Herbeheretan hazitako jatorri kurduko hiru neska gazte dira emakumeentzako igeriketa monitoareak. Gizonezkoentzat, ordea, beste hiru mutil. Igerilekuaren txandak sexuaren arabera dira, eta berdin gertatzen da muskulazio saioekin. Irakeko halterofilia txapelduna dute monitorea gizonetako-

“Ohore krimenen” azken zenbakiak

- ✓ Joan zen maiatzaren lehen hamar egunetan, 14 emakume hil ziren Suleymanian, Irakeko Kurdistango bigarren hirian. Erdiak bere buruaz beste egin zuen, eta beste erdia ohore krimenen biktima izan zen.
- ✓ Epe berean, beste 11 euren buruei su ematen saiatu ziren.
- ✓ Irakeko Kurdistango Gobernuaren arabera, soilik Suleymanian eskualdean 50 emakume saiatu dira beren buruei su ematen aurtengo lehen lau hilabeteetan. Beste zortzik urka hautatu dute.
- ✓ Irakeko Nazio Batuen Misioarentzat “ohore krimena” giza eskubi-deen kontrako erasorik handiena da Iraken.
- ✓ Nazioarteko hainbat erakundek dio 12.500 emakume hil direla 1991z geroztik Irakeko Kurdistanen, suizidio edo “ohore krimenen” biktima.
- ✓ 2007ko azaroan, Giza Eskubideetarako ministro den Aziz Mohamedek biktima gehienak 13-18 urtekoak zirela onartu zuen.
- ✓ Parlamentuko Emakumeen Taldeko liderra den Bakhshan Zangarentzat, suizidio saiakera anitzak etxeko indarkeriaren eta krudeltasuaren ondorio dira.

Ezkondu aurreko edozein sexu harreman edo horren susmoak familiaren izena “zikintzea” dakar. Garbitzeko modu bakarra hilketa da

ek. “Nire bezeroei onena eskaini nahi diet”, dio harro Ibrahimek bere bulegoan.

Tamalez, ez da dena uste bezain erraza: “Gizon eta emakumeak ez nahasteko ordutegiak bateratzea eromen handia izan da”, aitortu du Ibrahimek. “Hori nahikoa buruhauste ez eta gorriak ikusi ditugu jatetxe eta harrerako emakume langileak topatzeko. Lan eskaintza zabaldu genuen egun berean, 80 telefono dei baino gehiago jaso genituen, baina horietatik bi emakume besterik ez! Azkenean unibertsitatera jo behar izan genuen nesken bila. Asko dira lan egin nahi dutenak, baina gurasoek ez diete uzten”, azaldu du enpresariak.

Ibrahimen hurrengo proiektua zine-aretoa da, eraikin berean, hain zuzen. Hoshankek bezala, berak ere zinema maite du eta amets egiten du amerikar erako areto bat irekitzarekin.

Bertan, emakume orok, filmak ikusteaz gain, palomitak jateko aukera izango du.





Ohore krimenak

Hajer egunero igaro ohi da Hoshanken tabernaren aurretik bere lantokirako bidean. Inoiz ez zaio bururatu, alabaina, tea hartzea bertako terrazan. “Hango bezero urriek, gizon haiek, emagaldua naizela pentsatuko lukete eta ez lidakete begia gaintetik kenduko”, dio 35 urteko emakume honek. Baina ez da Hajer erraz kikitzen den horietakoa. Kazetariak emakumeen aldeko borrokari bere bizitzaren azken hamar urteak dedikatu dizkio. Eta oso zaila da emakume aktibista izatea Irakeko Kurdistanen; areago hemen nagusi den PDK alderditik kanpo.

Zine-aretoa irekitzeko Hoshank eta Ibrahimen ahaleginak oso baliagarritzat jotzen ditu Hajerrek. Tamalez, aisialdi aukera urria ez omen da bertako emakumeen gabeziarik handiena: “Hemengo emakumeak aitaren eskuetatik senarraren eskuetara pasatzen dira. Ezkontzak familien artean hitzartzen dira oraindik, askotan neskato xumeak baino ez direla. Oso emakume gutxik hautatzen du bere senarra izango dena”, dio.

Joan den apirilean 13 urteko neska batek sua eman zion bere buruari Saydani herrian. Antza, 28 urteko gizon batekin ezkondu nahi zuten. Bere gorputzaren %90 erre ondoren ospitalean hil zen. Rojan zuen izena. “Okerre-na da Rojanena bezalako milaka kasu daudela urtero hemen”, kexu da Hajer. “Honelakoak saihesteko legeak daude, baina nekez bete-arazten dira”.

Emakume belaunaldi desberdinak Irakeko Kurdistanango kaleetan.

Hajerrek aipaturiko milaka kasu horien artean “ohore krimenak” daude. Ezkondu aurreko edozein sexu harreman edo horren susmo xumeak familiaren izena “zikintzea” dakar. Garbitzeko modu bakarra hilketa da. Makina bat dira hilerio euren aitak edo anaiek akabatutako neskak. Suleymanian, esaterako, sakelako telefono batez grabatutako elkarrizketa “lizun” bat nahikoa arrazoi izan zen aita batek bere alaba hiltzeko duela bi hilabete. Hiri eta garai berean, banandu berria zen 30 urteko emakumea torturatu zuten bere bi anaiek. *Kebap*-ak egiteko burdinazko ezten beroak erabili zituzten.

“Drama gordinena emakume elbarriena da, zalantzarik gabe”, jarraitu du Hajerrek. “Elbarri eta itsuak bortxatzaileen biktima errazak dira. Asko haurdun gelditzen dira eta euren aitek edo anaiek hiltzen dituzte gero, ‘sexu harremanak eduki izanagatik’”. Gaizkileak, ordea, gutxitan zigortzen dituzte.

“Erdi Aroko gizarte tribala da gurea”, dio artikulua askotan egoera hau salatu duen emakume ausartak. “Familia, klana, garrantzitsua goa da emakumeen bizitza baino. Gauzak honela, ohore-hilketak etxe barruko kategorian sartzen dira. Kanpoko inork ez du esku-biderik parte hartzeko. Eta nahiago dugu begiak itxi”. ■

<http://www.argia.com/kurdistan>

kanalean, erreportajearen diaporama.